



UNTXI ARRUNTA

Oryctolagus cuniculus

TAMAINA

35-50 zm

ITXURA

Untxiak ile marroi-grisa du, sabelaren azpian argiagoa. Kolore orokorra nahiko diskretua da eta ingurunean gordetzeko aukera ematen du.

Buztanaren azpiko aldea oso zuria da, eta ongi ikusten da ihes egiten duenean. Haren ihesa berezia da: salto eginez sigi-saga doa.

NOLA IDENTIFIKATU?



NOIZ?

> Urte osoan zehar

NON?

- > Soroetan
- > Dunetan
- > Parkeetan
- > Oihanetan

! Erbiarekin nahas daiteke, baina azken hau handiagoa da.

AURKEZPENA

BIZI ESPERANTZA

2-3 urte (9 urteraino)

ESPEZIEAREN EKOLOGIA

Belarjalea da.

Untxiak lurtean ziloak egiten ditu. Bertan, dozenaka untxiko talde batean bizi da, eta koloniak sortzen ahal ditu. Untxi talde batek 1 eta 4 hektarea arteko lurraldea behar du.

Oso ugalkorra da, oso gazte erreproduzitzen ahal delako. Gauean ongi ikusten duenez, batez ere ilunabarretik goiti ateratzen da.

BEHARRAK, MEHATXUAK ETA ERRONKAK

Lehen, mendebaldeko Europan ugaria, untxiaren populazioak argiki apaldu dira.

Patologiek, bereziki mixomatosiak, heriotz handiak eragiten dituzte untxien populazioetan. Errepide bilbea ere kontuan hartzekoa da.

Baina, elikatzeko, untxirik gabe, harrapari batzuk mehatxupean egonen lirakeke. Landaredi mota batzuk mantentzeko (soropilak, dunak) eta bertan behera utzitako galerietan beste espezie batzuk (narrastiak adibidez) hartzeko ere garrantzitsua da. Ondorioz, funtsezkoa da untxi populazioak maila orekuan mantentzea, lekuka egiten den bezala untxiak berriz sarraraziz.